

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2018ko APIRILAREN 12an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2018ko apirilaren 12an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


**ZINEGOTZIAK:** Gotzon Jauregi Sarasola  
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre  
Ander Leon Nanclares  
Angel Serrano Martinez  
Aritz Sarria Saraqueta  
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
  - **2018ko martxoaren 15ean egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 15 de marzo de 2018.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2017ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada./Dación de cuenta de la liquidación correspondiente al ejercicio 2017.**
- 4. Tolosaldeko Atari-aren 2017 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./ Aprobación de la liquidación de la ayuda económica correspondiente a al ejercicio 2017 de “Tolosaldeko Ataria”.**
- 5. Larraulgo etxebizitza erabilerarako hiri lurreko ataripe eraikuntza arautzen duen ordenantzaren behin betiko onespina, hala bada./ Aprobación definitiva de la ordenanza reguladora para la construcción de porches en suelo urbano residencial de Larraul.**
- 6. Larraulgo Iturtasarobe Olatza bidea konpontzeko lanen esleipena, hala bada/Adjudicación de los trabajos de arreglo de camino “Iturtasarobe Olatza” .**
- 7. Larraulgo Madariaga pabiloia egokitzeko obra baimena eskaera, G.J. / Solicitud de licencia de obras de acondicionamiento en el pabellón Madariaga, G.J.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8. Larraulgo Udal langileen opor egutegien onespina, hala bada./ Aprobación de los calendarios de vacaciones de los trabajadores del Ayuntamiento de Larraul.
9. Tolosaldea Garatzen-i 2018 urteari dagokion ekarpena onestea, hala bada./ Aportación económica a Tolosaldea Garatzen correspondiente al ejercicio 2018.
10. 2018 urterako udal tasen hobari eskaeraren azterketa, hala bada./Estudio de las solicitudes de bonificación en las tasas para el ejercicio 2018.
11. Herriko jaien antolaketarako ekarpena burutzea, justifikatzeke ekarpena modura, hala bada./Aportación económica correspondiente para la organización de las fiestas patronales, modalidad gastos a justificar.
12. Aste kulturalaren antolaketarako ekarpena burutzea, justifikatzeke ekarpena modura, hala bada./Aportación económica para la organización de la semana cultural, modalidad gastos a justificar.
13. Kirol astearen antolaketarako ekarpena burutzea, justifikatzeke ekarpena modura, hala bada./Aportación económica para la organización de la semana deportiva, modalidad gastos a justificar.
14. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
15. Beste batzuk/Otros.
16. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

### LEHENENGO PUNTUA

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2018 urteko martxoaren 15eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### BIGARREN PUNTUA


#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

06/2018 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, L.M.A. jaunari herri bidea erabiltzeagatik jarritako fidantza bueltatzea, ebazten duena.

07/2018 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 22koa, Larraulgo udalaren 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

08/2018 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 10ekoa, Tolosaldea Garatzen-eko 2018ko apirilaren 10ean egingo den batzar orokorrean, Larraulgo udaleko ordezkari modura Aritz Sarria zinegotzia izendatzea, ebazten duena.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

09/2018 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 10ekoa, Apattaerrekako industriguneko 2018ko apirilaren 10ean egingo den batzar orokorrean, Larraulgo udaleko ordezkari modura Aritz Sarria zinegotzia izendatzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### HIRUGARREN PUNTUA

#### **2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**

Idazkari-kontuhartzaileak 2017/05 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2017 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik.

### **2018/07 ALKATETZA DEKRETUA**


Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

#### **EBATZI DUT**

**Lehena.-** Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n:		144.170,78
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		818,78
Aurrekontuko zordunak :	523,40	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	295,38	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		29.730,79
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	14.001,98	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	15.728,81	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		115.258,77



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

5.- Saldo kobragaitzak:	0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:	0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	115.258,77

### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	43.346,71
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-531,47
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	9.317,74
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	52.132,98

### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	119.937,42
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	27.844,81
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	147.782,23


**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

### **LAUGARREN PUNTUA**

### **TOLOSALDEKO ATARI-AREN 2017 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M.-k, hau da, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2017ko ekitaldiko memoria, gastu eta sarreren xehetasunak eta gastu-



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

agiriak, Talde honek eta Larraulgo Udalaren artean sinatutako Lankidetzaz Hitzarmenean adierazten den bezala.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2017 ekitaldiko memoria gastu eta sarreren xehetasunak eta gastu-agiriak onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-ri ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO ETXEBIZITZA ERABILERARAKO HIRI LURREKO ATARIPE ERAIKUNTZA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN BEHIN BEIKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik, Larraulgo Udalbatzarrak, 2018ko otsailaren 15ean egindako osoko bilkuran, haserako onespena eman ziola Larraulgo etxebizitza erabilerarako hiri lurreko ataripe, eraikuntza arautzen duen Ordenantzari.

Ikusirik 30 lanegunez jendaurrean egon dela, 2018 otsailaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuz.

Ikusirik aipaturiko iragarkia jendaurrean erakusgai egon den epean ez dela inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- Larraulgo etxebizitza erabilerarako hiri lurreko ataripe, eraikuntza arautzen duen ordenantzaren behin betiko onarpena.

BIGARRENA: Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, onartutako testua bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO ITURTASAROBEN OLATZA BIDEAREN KONPONKETA LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Iturtasarobe Olatza bidearen konponketa lanak egiteko asmoa duela Larraulgo Udalak.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraulgo Iturtasarobe Olatza bidea konpontzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, Landa inguruneko eta Lurralde Orekako departamentuak, 2017 urteko deialdian, 34.742,73 eurotako diru-laguntza esleitu ziola Larraulgo Udalari, lanak 2018lko irailerako amaitu behar direlarik.

Ikusirik, aipaturiko bidea konpontzeko lanak esleitzeko hiru aurrekontu eskatu zirela, 2017ko irailean. Eskatutako aurrekontuak, ondorengoak izanik: OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK, S.L., EXCAVACIONES ORUEZABAL S.A. eta MURGIL ERAIKUNTZAK S.L.

Ikusirik Excavaciones Oruezabal S.A. enpresak ez zuela aurrekonturik aurkeztu.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den, Eba Erkizia arkitektoak, aurkezturiko hiru aurrekontuak aztertu eta ondoren egindako txostenean dioena, 2017ko azaroaren 6koa, non Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak S.L. enpresak aurkezten dituela orokorrean prezio unitario merkeenak, ondorioz, bere esleipen proposamena Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak S.L. enpresaren alde izango da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Iturtasarobe Olatza bidearen konponketa lanak egiteko Eba Erkizia Brion prestaturiko proiektua onestea.

BIGARRENA: Larraulgo Iturtasarobe Olatza bidea konpontzeko lanak Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak S.L. enpresari esleitzea, 33.780,00 eurotako diru kopuruan. Lanak amaitzean metroen neurketa zehatza egingo delarik.


HIRUGARRENA: Gastua 2017 aurrekontuetako 1 0000.601.153.20.01 partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri MURGIL, S.L., Excavaciones Oruezabal S.A. eta Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak S.L. enpresei ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO MADARIAGA PABILOIA EGOKITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, G.J.**

Ikusirik G.J. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Madariaga pabiloia egokitzeke obra baimena eskaera egiten du.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, 2018ko apirilaren 3an, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

### **"LARRAULGO MADARIAGA PABILOIA EGOKITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

G.J.S. jaunak, Larraulgo Madariaga pabiloia egokitzeko baimena eskatzen du, batazbesteko aurrekontu eta memoria txiki bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

*Aurkeztutako eskarian, Madariaga pabiloiaren zati batean leihoak egokitu eta pintatu eta kanaloiak aldatu nahi direla esaten da. Lan hauen aurrekontua 2.000€ izango da.*

*Larraulgo arauen 14º artikulua eraikinen kanpo itxuren aldetek udal lizentzia behar dutela esaten du. 2006-ko Lurzoruaren Legearen 199 artikulua higiezinak kontserbatzeko eta birgaitzeko eginbeharrak arautzen ditu.*

#### Artículo 199. El deber de conservación y rehabilitación

*1. Los propietarios de terrenos, construcciones, instalaciones y edificios tienen el deber de mantenerlos en condiciones de seguridad, salubridad, ornato público y decoro, realizando los trabajos y las obras precisas para conservarlos o rehabilitarlos, a fin de mantener las condiciones requeridas para la habitabilidad o el uso efectivo.*

*Madariaga granja edo pabiloia, Larraulgo lur ez hiritargarriaren D20 produkzio zonaldearen barruan kokaturik dago, bereziki 1 poligonoko 377 lursailean.*

*Hau honela izanik, hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko da, bereziki 48º artikulua.*

#### Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.


*-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.*

*-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.*

*- Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.*

...

*Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez eta aurreko baldintzak betetzen badira, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

*\*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Gotzon Jauregiren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU

LEHENA: G.J. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Madariaga pabiloia egokitzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO UDAL LANGILEEN OPOR EGUTEGIEN ONESPENA, HALA BADA**

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2018 ekitaldirako opor egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:


BAKARRA: 2018 urterako Udal langileek aurkezturiko opor egutegiak onartzea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **TOLOSALDEA GARATZEN-i 2018 URTEARI DAGOKION EKARPENA ONESTEIA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2017ko abenduak 19ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2018 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 4.606,00 euro direlarik.





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, 2018 urteko ekarpena onestea, guztia, 4.606,00 euro direlarik. Lehen ekarpena burutzea onesten da, hau da, 2.303,00 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 4.606,00 eurotako gastua onestea, ordainketak 2018ko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 partidaren kargura egingo direlarik.

### HAMARGARREN PUNTUA

#### **2018 URTERAKO UDAL TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Gaia mahai gainean uzten da, dokumentazio gehigarria behar delako.

### HAMAIKAGARREN PUNTUA

#### **HERRIKO JAIEN ANTOLAKETARAKO EKARPENA BURUTZEA, JUSTIFIKATZEKE EKARPENA MODURA, HALA BADA**

Ikusirik, herriko jaien antolaketa Kultur batzordeak egiten duela. Bertan, Udaletxeko kultur zinegotzia parte delarik, legealdi honetan Cristian Pizarro zinegotzia izango da.

Ikusirik, herriko jaien antolaketarako, premia duten hainbat gastu aurreratu behar direla.


Ikusirik, 2018 udal aurrekontuetan 226.338.00.06 partidaren herriko jaiak antolatzeko 7.000,00euro aurreikusi direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2018 urteko herriko jaien antolaketa finantzatzeko, 7.000,00 eurotako diru-kopuruaren ekarpena burutzea Kultur Batzordeari, justifikatzeke ekarpen modura. Diru-kopuru honen arduraduna Cristian Pizarro Kultur zinegotzia izango delarik.

BIGARRENA: 7.000,00 eurotako gastua onestea, udal aurrekontuetako 226.338.00.06 partidaren kargura.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Cristian Pizarro Kultur zinegotziari jakinaraztea, herriko jaiak bukatuta, hilabeteko epea izango duela, Udaletxe honek egindako diru ekarpenaren frogagiri guztiak aurkezteko.

### **HAMABIGARREN PUNTUA**

#### **ASTE KULTURALAREN ANTOLAKETARAKO EKARPENA BURUTZEA, JUSTIFIKATZEKE EKARPENA MODURA, HALA BADA**

Ikusirik, azaroan egiten den aste kulturalaren antolaketa Kultur batzordeak egiten duela. Bertan, Udaletxeko kultur zinegotzia parte delarik, legealdi honetan Cristian Pizarro zinegotzia izango da.

Ikusirik, aste kulturalaren antolaketarako, premia duten hainbat gastu aurreratu behar direla.

Ikusirik, 2018 udal aurrekontuetan 226.330.00.06 partidaren aste kulturala antolatzeko 2.500,00euro aurreikusi direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2018 urteko aste kulturalaren antolaketa finantzatzeko, 2.500,00 eurotako diru-kopuruaren ekarpena burutzea Kultur Batzordeari, justifikatzeke ekarpen modura. Diru-kopuru honen arduraduna Cristian Pizarro Kultur zinegotzia izango delarik.

BIGARRENA: 2.500,00 eurotako gastua onestea, udal aurrekontuetako 226.330.00.06 partidaren kargura.


HIRUGARRENA: Cristian Pizarro Kultur zinegotziari jakinaraztea, aste kulturala bukatuta, hilabeteko epea izango duela, Udaletxe honek egindako diru ekarpenaren frogagiri guztiak aurkezteko.

### **HAMAIRUGARREN PUNTUA**

#### **KIROL ASTEAREN ANTOLAKETARAKO EKARPENA BURUTZEA, JUSTIFIKATZEKE EKARPENA MODURA, HALA BADA**

Ikusirik, maiatzaren 13tik 20-ra bitartean egingo den kirol astearen antolaketa Kultur batzordeak egiten duela. Bertan, Udaletxeko Kiroletako zinegotzia parte delarik, legealdi honetan Angel Serrano zinegotzia izango da.

Ikusirik, kirol astearen antolaketarako, premia duten hainbat gastu aurreratu behar direla.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, 2018 udal aurrekontuetan 226.341.00.01 partidari kirol astea antolatzeko 1.500,00euro aurreikusi direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** 2018 urteko kirol astearen antolaketa finantzatzeko, 1.500,00 eurotako dirukopuruaren ekarpena burutzea Kultur Batzordeari, justifikatzeke ekarpen modura. Dirukopuru honen arduraduna Angel Serrano Kiroletako zinegotzia izango delarik.


**BIGARRENA:** 1.500,00 eurotako gastua onestea, udal aurrekontuetako 226.341.00.01 partidaren kargura.

**HIRUGARRENA:** Angel Serrano Kiroletako zinegotziari jakinaraztea, kirol astea bukatuta, hilabeteko epea izango duela, Udaletxe honek egindako diru ekarpenaren frogagiri guztiak aurkezteko.

### **HAMALAU GARRENGO PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

VAIGAS	13,18
IXABEL AGIRRESAROBÉ	500,00
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	5.275,60
IZFE	44,71
BELAKO	60,00
EBA ERKIZIA	1.068,51
ZU ETA BIOK	717,26
ULAHÍ	392,98
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.027,27
ZELAI	203,89
FERRETERIA BARBE	138,36
GOIKOETXEA ALBISU	119,72
TOLOMENDI	155,55
KIROLZER	55,60
IKEA	363,88
BULEGOAK	187,71
AKETEGI	35,20
SETALDE	38,67
ASTEASUKO UDALA	716,58
IBERDROLA	228,98



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IBERDROLA	69,88
IBERDROLA	229,48
IBERDROLA	30,81
IBERDROLA	181,77
MOVISTAR	18,97
MOVISTAR	132,65
MOVISTAR	84,66
MOVISTAR	18,64
MOVISTAR	22,82
MOVISTAR	53,24
MOVISTAR	18,44
MOVISTAR	53,24
MOVISTAR	63,17
MOVISTAR	18,41
MOVISTAR	53,24
CORREOS	9,86

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **12.402,93** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **HAMABOSTGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

**Ez dira aurkezten.**


### **HAMASEIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

**Ez dira aurkezten.**

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

